

GOBERNU BATZARRA

2006.12. 04

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta seiko abenduaren 4an, Gobernu batzarra bildu da, ohizko bilera egiteko, goizeko 8.00etan hasita. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrenda aztertzeko eta erabakiak hartzeko:
Jokin Bildarratz Sorron	
Zinegotziak:	
Onintza Lasa Arteaga Andoni Iturzeta Arbillaga Jose M. Vieites Gomez	1.-Aurreko akta onartzea.
Idazkaria:	2.-2.ziurtapena San Frantzisko Ibiltokiko zati bat oinezkoentzat gertatzeko obra.
Jose Luis Unanue Ugalde	3.-Leidor ingurua urbanizatzeko obraren 2. ziurtapena.
	4.-Leidor zinemako ekipamendu eszenikoaren 5. Ziurtapena.
	5.- Tolosa 750.urteurrenari aportazioa.
	6.- Txolarre irratiaeren eskaera.
	7.-Ereite Elkarte Kultur Anitzaren eskaera.
	8.- 32. Zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2006ko azaroaren 27an egindako batzarraren akta azertu eta aho batez onartu da.

2.- 2. Ziurtapena San Frantzisko Ibiltokiko zati bat oinezkoentzat gertatzeko obra.

Obra, Auzo eta Herri Mantenimenduko batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorritik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- San Frantzisko ibiltokiko zati bat oinezkoentzat gertatzeko obra, Construcciones y Asfaltos Mularri, S.L.k, aurkeztu duen 2. ziurtapena (40.063,96€ koa, BEZa barne), onartzea.

BIGARREN.- Erabaki honen berri Obra, Auzo eta Herri Mantenimenduko departamentuari, Kontuhartzaitzari eta Construcciones y Asfaltos Mularri S.L.,ri ematea.

3.- Leidor ingurua urbanizatzeko obraren 2. ziurtapena.

Obra, Auzo eta Herri Mantenimenduko batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorritik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Leidor Ingurua Urbanizatzeko aurkeztutako 06/0419 zenbakia duen 2. Ziurtapena, Orsa, S.L.,k aurkeztutakoa eta (69.696,57 € koa, BEZa barne), onartzea.

BIGARREN.- Erabaki honen berri Obra, Auzo eta Herri Mantenimenduko departamentuari, Kontuhartzaitzari eta Orsa, S.L.,ri ematea.

4.- Leidor zinemako ekipamendu eszenikoaren 5. Ziurtapena.

Obra, Auzo eta Herri Mantenimenduko batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorritik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Leidor zinemako ekipamendu-eszenikorako Chemtrol división teatro, S.A.,k aurkeztu duen 5. ziurtapena (56.782,02 € koa, BEZa barne), onartzea.

BIGARREN.- Erabaki honen berri Obra, Auzo eta Herri Mantenimenduko departamentuari, Kontuhartzaitzari eta Chemtrol división teatro, S.A.,ri ematea.

5.- Tolosa 750.urteurrenari aportazioa.

TOLOSA 750Fundazioak 2006ko gastuei aurre egiteko egin duen eskaera ikusita eta Kreditu aldaketan onartutako kopurua kontuan izanik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 203.000,00 € ordaintzea TOLOSA 750.urteurrena fundazioari.

BIGARREN.- Erabaki honen berri TOLOSA 750.urteurrena Fundazioari eta Kontuhartzaitza departamentuari ematea.

6.- Txolarre irriaren eskaera.

Ikusita Txolarre irriak egin duen diru laguntza eskaera, Gobernu Batzar honek, Euskara eta Hezkuntza batzordeak 2006ko azaroaren 28an jaulkitako diktamenarekin bat etorritik, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 2.000 €-ko diru laguntza ematea Txolarre irriari.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Euskara eta Hezkuntza departamentuari, Kontuhartzaitzari eta Txolarre irriari.

Hausnarketa modura Onintza Lasak proposatu du Komunikabideen kasuan, etorkizunari beira, eskualdeko trataera eman beharko zitzaiela Tolosaldea Garatzen Elkartearen bidez, telebistari bezelaxe.

Alkateak erantzun dio kasu guztiak ez direla berdinak, baina bai Udaletik Komunikabideei buruz (Udalak laguntzen dituen) azterketa bat egin behar dela.

7.- Ereite Elkarte Kultur Anitzaren eskaera.

Ereite elkartekoak, irailaz geroztik, etorkinentzako euskarazko eskolak ematen ari dira eta, bide batez, lan hori egin ahal izateko haurtzaindegia ere jarri dute martxan.

Kontuan izanik egiten ari den lana garrantzizkoa dela, Euskara eta Hezkuntza batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorriz, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ereite Elkarteari 2.000€-ko diru laguntza ematea.

BIGARREN.- Erabaki honen berri ematea Euskara eta Hezkuntza departamentuari, Kontuhartzaitzari eta Ereite Elkarteari.

8.- 32. Zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzaitzak 32. faktura-zerrenda, 154.328,73 €-koa, aurkeztu du.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Aipatutako 32. faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri Kontuhartzaitzari ematea.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jotzen da, goizeko 10etan.

ALKATEA

IDAZKARIA